Negozio-ereduko unibertsitateen aurrean, gureak publikoak

(Berria 2021eko ekainak 25)

Arantza Gutierrez Paz eta Irati Tobar Eguzkitza – LAB Irakaskuntzako kideak

Iritzia

Negozio-ereduko unibertsitateen aurrean, gureak publikoak

Arantza Gutierrez Paz eta Irati Tobar Eguzkitza
LAB irakaskuntzako kideak

Unibertsitate eredu elitistek publikoetan eragiten dute, eta kanpoko finantzazioa bilatzera, ingelesa euskararen gainean jartzera edo ikasketa -eredu neoliberalak saritzera behartzen dituzte

Antzeko argazkiak ikusi ditugu EAEko bi hiriburutan: trajedun Juan Mari Aburto eta Gorka Urtaran alkateak irribarretsu kamerari begira, beste gizon irribarretsuei eskua estutzen, Bilbok eta Gasteizek punta-puntako unibertsitateak jasoko dituztela iragarrita. Antzeko irudia errepikatu zen Urdulizko *campusaren* aurkezpenean; horretan, Unai Rementeria Bizkaiko ahaldun nagusia zegoen irudiaren erdialdean, goi-mailako ikasketak «irauliko» dituen eredu berritzailea salduz.

[Jarraitu irakurtzen ->]